

TEKNOLOGIA

Egoitza elektronikoen unibertsoa



DIANA FRANCO

Gure egunerokoa erakunde ugariarekin kudeaketak egiten gabiltza, publiko zein pribatu, eta internet gauzak erraztera etorri da neurri batean: ez gara desplazatu behar, ziurtagiri digitalekin gure nortasuna egiaztatzen da tramiteak egiterakoan... eta erakundeentzat prozesuen kontrola eta ikuskatzea nabarmen hobetzen dira.

Hala ere, sistema konplexu hau barneratzea ez da lan erraza askorentzat. Lan munduko egoitza elektronikoa eta mundu pribatuko egoitza elektronikoa alde batera utzita, eremu publikoan maila askotariko egoitza elektronikoa ditugu eta horiek, azken batean, administrazio publikoaren unibertsoaren isla digitala dira. Udalarekiko tramiteak (zaborra, zirkulazio zerga, erroldatzea, laguntzak...), Aldundiarekikoak (PFGR, Oinordetzak,...), Eusko Jaurlaritzarekikoak (hezkuntzari lotuak, osasunari, kontsumoari, lanari...), Estatuarekiko tramiteak eta abar ulertzea da erronka handiena nire ustez, eta deigarria egiten zait sistema konplexu honek interneten duen isla ez ulertzeari arrakala digitala deitzea. Arrakala digitala txikitzeko indarrak egoitzen erabilera teknikoan eta ziurtagiri digitalen funtzionamenduan oinarritzen dira gehienetan, baina pertsona askorentzat, arazoa tramitearen izaera bera eta erakundeentz zentzua ez ulertzea ere badira.

Arazoa ezberdina izan ohi da pertsona talde ezberdinentzat. Nagusientzat, arazoa ez da hainbeste erakunde publikoaren dinamikaren ulermena, zerikusi handiagoa du eraldaketa digitalarekin: lehen pertsonalki egiten zutena orain gailuen bidez eta ziurtagiri digitalekin egitearen aldaketa barneratzea zaila zaie. Gazte eta atzerritar askorentzat berriz, dugun sistema publikoan gutxiago ibiliak, sistema bera ulertzea da arazo handiena. Uste dut erronka handiena bigarren hori dela: nola erraztu dugun sistema publikoa erraz ulertzea garai bakoitzean dugun teknologiaz harago. Beharbada, ondo barneratu beharreko lehen ideia da gure gizartearen errealitatea eraiki dela gure jardueraren oro ikuskatua izatearen gainean. ●

NAZIOARTEA



Errefuxiatu rohingyak exodoaren bosgarren urteurrenean.

Rohingyak, bost urte justizia eske

AXIER LOPEZ

Bost urte bete berri dira rohingyen (azken) bortxazko exodo handitik. 2017ko abuztuaren 25ean, Myanmar militarrek saraskien, bortxaketen eta suteen kanpaina masibo bat hasi zuten haien kontra. Rohingyen artean sortutako beldurraren ondorioz, 750.000 lagunek bizitokia utzi eta Bangladeshera ihes egin behar izan zuten.

Joan den ostegunean, hilak 25, Rohingyen Genozidioaren Oroimen Eguna izan da. "Ankerkerien urtemugak agerian utzi du nazioarteko ekin-tzarik eza", adierazi du Human Rights Watchek, *Myanmar: ez justiziarik ez askatasunik rohingyentzat bost urte geroago* txostena argitaratu ondoren.

600.000 rohingya inguru bizi dira Myanmarreko -Birmanian ohia- erregimen zapaltzailearen pean. Gogoratu behar da 2021eko otsailetik Myanmar junta militar batek zuzentzen duela estatu-kolpea jo ondoren. Orduetik, heriotza-zigorren erabilera izugarri handitu dela salatu du Amnistia Internazionalak; "agintarietako desafio egitera ausartzen diren pertsona guztien aurkako jazarpeneko tresna" bilakatu du Myanmarreko armadak. Uztailean lau pertsona exekutatatu zituzten, terrorismoaz eta Gobernuko junta militarri aurre egiteko miliziei lagundu izanaz akusatuta.

Rohingyak gutxiengo musulmana dira gehiengoa budista duen Myanmarren. Estatuak ez ditu onartzen tal-

de etniko ofizialen artean eta 1982tik herritartasuna ukatu die. NBEk 2017ko kanpaina "garbiketa etnikotzat" jo du. 2017an hondartzetatik eta arroz-soroetatik Bangladeshko hegoaldean sartu ziren milaka rohingya errefuxiatuak batu ziren aurretik Bangladeshen zeuden beste 300.000 pertsonarekin, lehenago izandako beste exodoetatik han bizi zirenak. Horrela, "munduko errefuxiatu-eremurik handiena" osatu zuten, Human Rights Watchek dioenez. Itzulera oso zaila dute oraindik. Myanmarreko egoera politiko oldarkorragatik eta rohingya gehienek ez dutelako ez nortasun legalik ez herritartasunik.

Humanity Auxilium GKEko mediku Mohsina Chakladerren arabera, "errefuxiatu-esparruetara egindako azken bisitetan egiturazko antolaketa handiagoa ikusi dut, baina azpiegiturarik gabe jarraitzen dute (drainatze-sistema egokiak, komunak, ur garbi eta seguruaren hornidura) eta kanpalekuetako lokatz-jausiek mugikortasuna zailtzen dute. Osasun arreta ez da nahikoa pilaketak eta osasungarritasunik ezak eragindako herritarren eskaerei erantzuteko. Cox's Bazar barrutian bakarrik, Bangladesh mendebaldeko kostaldean, 34 errefuxiatu kanpamentu daude. Han bizi dira bost urtez rohingya errefuxiatu gehienak.

Justizia eta nazioarteko komunitatearen erantzukizun eskaerak bere horretan jarraitzen du. ●